


Erbia eta Dortoka. Bigarren aukera

Ekainaren
6an
eskuragarri



Testua eta irudiak: **David Pintor**

Itzulpena: Manu López Gaseni

Saila: Albur irudiduna. Egile-lanak

Gaiak: fabula klasikoa, adimenaren eta iraunkortasunaren garaipena, umorea, jolasa.

Kartoizko azalak | 22 x 22 cm | 40 or.

Salneurria: 14,00 €

ISBN: 978-84-9172-337-0

HIZKUNTZA HAUETAN ERE: GAZTELANIA, GALEGOA, KATALANA, PORTUGESA, ITALIERA

+4

ISBN: 978-84-9172-337-0



Alegia klasikoaren bertsio dibertigarri eta transgresorea, argitzen diguna zein den dortokak lasterketa irabaztearen benetako arrazoia.


«Erbia eta dortoka» alegia ezagun bat da, jatorriz Esoporena omen dena eta gerora besteak beste La Fontaine frantsesak edo Samaniego arabarrak berridatzia, zeinaren bidez belaunaldiz belaunaldi ikasi dugun pertseberantzia gai dela harrokeria menderatzeko.

David Pintor narrazio klasiko horrekin jolasten da, eta amaiera desberdin eta oso dibertigarri bat proposatzen digu, non pertseberantzia eta buruargitasuna oso garrantzitsuak diren. Irudi adierazkorrek, komikiaren ikus-hizkuntzatik hurbil, areagotu egiten dute umore-sen handiko album honen barre eragiteko ahalmena.

David Pintor

A Coruñaiko umoregile grafiko, ilustratzaile eta margolaria da. Beste sari batzuen artean, honako hauek jaso ditu: Andersen 2015 (Italia) eta Nami Island 2013 (Korea), Society of News Design delakoaren saria, ilustrazioaren arloko Pura y Dora Vázquez delakoa, bidaia-kaieretako Clermont-Ferrand Nazioarteko Saria, Urteko Ilustratzailearen Città del Sole Saria eta Sharjah-ko (Dubai) Liburu Azokaren 2. Saria «Almanaque musical» obraren ilustrazioengatik. Gainera, finalista izan da CJ Picture Book Awards (2011) direlakoetan, eta The White Ravens zerrendan sartua. Haren obra zenbait aldiz aukeratu izan da Bratislavako Ilustrazio Bienalean eta Boloniako Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Azokan. «A Coruña» obragatik liburu ilustratuaren arloko Follas Novas Saria ere eman diote 2023an.

<http://www.davidpintor.com>



Erbia eta Dortoka. Bigarren aukera

